

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO  
UNIBERTSITATEKO BIZIKIDETZA BATZORDEA  
ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDURAKO BARNE ARAUTEGIA**

1. artikulua.- Xedapen orokorra.

1.- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Bizikidetza Arautegiko 20. artikulua 6. eta 7. ataletan dioenaren arabera, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Bizikidetza Batzordeak bere funtzionamendu arau propioak onartuko ditu, publikoak izango direnak.

2.- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Bizikidetza Batzordea eratzeko eta organo horrek bilerak deitu eta egiteko eta erabakiak hartu eta aktak bidaltzeko, aurrez aurre egonda nahiz urrutitik jardun ahalko da, unibertsitateak erabiltzen dituen tresna teknologikoak baliatuta horretarako.

2. artikulua.- Eskumenen eremua

Bizikidetza Batzordeak jardungo du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Bizikidetza Arautegiko 21. artikuluan adierazitakoari jarraikiz (Gobernu Kontseiluak 2023ko uztailaren 20an onartutako arautegia), bai eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Kode Etikoko IV. atalean adierazitakoari ere.

3. artikulua.- Bilerak

1.- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Bizikidetza Batzordeak behar bezala eratu beharko da bere eginkizunak betetzeko.

2.- Batzordea behar bezala eratzeko, honako hauek egon beharko dira, aurrez aurre edo urrutitik: batzordeko burua edo hark bere ordezkari izendatzen duen pertsona; eta batzordeko hiru kide gutxienez, zeinetako bat organoko idazkaria izango den.

4. artikulua.- Bileretarako deia

1.- Batzordearen bileretarako deia batzordeko buruak egingo du, bere ekimenez edo, gutxienez, kideen herenak eskatuta.

2.- Batzordeko idazkariak batzordearen bileretarako deia bidaliko die organoko kide guztiei, unibertsitateak erabiltzen dituen tresna teknologikoak baliatuta, bileraren eguna baino berrogeita zortzi ordu lehenago gutxienez. Deialdiarekin batera bidaliko du batzordeko buruak zehaztutako aztergaien zerrenda, bai eta bileran aztertuko diren gaien inguruko dokumentazioa ere, ahal bada.

3.- Batzordeko buruak aztergaien zerrendan azaltzen ez diren gaiak sartzeko proposamena egin ahal izango du, presazkoak badira, baldin eta batzordeko kide guztiak badaude bileran eta gehiengoak erabakitzen badu aztergaia presazkoa dela.

5. artikulua.- Prozedura eta aholkularitza

1.- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Bizikidetza Arautegiko 24. artikulua arabera, batzordeak bitartekariak izendatuko ditu bitartekaritza prozedura bakoitzerako, eta zeregin horretan aritu ahal izango dira: Bizikidetza Batzordeko kideak, UPV/EHUko aldezia edo bitartekaritza arloan aditua den unibertsitateko kide bat, Bizikidetza Batzordeak aukeratua.

2.- Jorratuko den gaiaren nondik norakoak kontuan hartuta, bilera batzuetarako laguntza eskatu ahal izango die batzordeak unibertsitateko beste organo edo zerbitzu batzuetako kideei, baita kanpoko pertsonari ere. Horiek guztiek hitza izango dute, baina ez botorik, eta jorratzen diren gaien gaineko konfidentzialtasun betebeharra errespetatu beharko dute.

6. artikulua.- Erabakiak

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Bizikidetza Batzordeak bere kideen gehiengo osoz hartuko ditu erabakiak.

## 7. artikulua.- Aktak

1.- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Bizikidetza Batzordeko idazkariak bileraren akta egingo du, batzordeko buruak ontzat eman beharko duena.

2.- Aktan, nahitaez, honako hauek jaso behar dira: bertaratuak, aztergaien zerrenda, bilera non eta noiz izan den, eztabaidetako puntu nagusiak eta hartutako erabakiak.

Aktan jaso ahalko dira, baita ere, organoko kideren batek eskatzen badu, erabakiaren aurka emandako botoa, abstentzioa eta bataren zein bestearen arrazoiak, edo erabakiaren alde emandako botoaren esanahia.

3.- Aktari erantsiko zaizkio irizpenak eta hartutako erabakiak, bai eta kideen boto partikularrak ere, inork halakorik emanez gero bat ez etortzeagatik gehiengoaren erabakiarekin.

4.- Batzordeko kideek eska dezakete aktan hitzez hitz jasotzeko euren parte hartzea edo proposamena. Horretarako, idatziz aurkeztu beharko dute testu osoa bileran bertan edo batzordeko buruak zehaztuko duen epean. Testu hori aktan jasoko da edo, bestela, testuaren kopia erantsiko zaio aktari.

5.- Bilera bakoitzeko akta bileran bertan onartu ahalko da edo hurrengo bileran.

Idazkariak akta bidaliko die organoko kideei bide elektronikoak erabiliz, eta kideek testuarekiko adostasuna edo eragozpenak adierazi ahalko dituzte, testuaren onespena bideratzeko; baiezkoa emanez gero, bileran bertan onartutzat joko da.

Akta ez bada onartzen bileran bertan, idazkariak aktaren zirriborroa egingo du eta organoko gainerako kideei bidaliko die, hurrengo bileraren eguna baino 48 ordu lehenago gutxienez.

6.- Batzordeko buruak eta bilerako idazkariak onartutako akta sinatuko dute.

7.- Akta onartu baino lehenago hartutako erabakiei buruzko ziurtagiriak egin ahal izango ditu idazkariak, baina horietan espresuki adierazi beharko da akta onartu aurrekoak direla.

*Jokin Gorozika Bidaurratzaga*  
*UPV/EHUko Bizikidetza Batzordearen*  
*presidentea*

*Diego Manuel Espasa Labrador*  
*UPV/EHUko Bizikidetza Batzordearen*  
*idazkaria*